



Xabier Erauskin Iurruta (*)

Wildstrubeleko bira

BERNAKO Alpeak Suitzako mendebaldean aurkitzen dira, Valais eta Bernako kantoien artean. Hegoaldera Rodano ibaiak gurutzatzen duen Valais bailara eta iparraldera Bernako Oberland edo goi lurak banatzen dituzte, baina mendeetan zehar bi eskualde horien arteko komunikazioak Gemmipass eta Rawilpass lepoak gurutzatzen dituzten bideetatik egin izan dira. Ingurune horretan kokatzen da Wildstrubel mendiari bira ematen dion ibilbidea eta orografia erabat desberdinak dituzten bi kantoietako lurretan barrena ibiltzen da. Nahiz eta turismoa nagusi den herri eta ingurune batzuetatik igaro, ez dira eremu jendetsuak eta, inguruko lasaitasunak lagunduta, ibilbide honek paraje eder eta bereziak ikusteko aukera ematen du. Bost eguneko zeharkaldia prestatu genuen hegoaldeko Leukerbad herritik abiatu, Bernako goi lurraldeetan ibili eta Valaisera itzultzeko.

■ Leukerbad - Kandersteg

Abuztuaren 1ean ailegatu ginen Suitzara, bertako jai nazionala zela jakin gabe eta gauean *Valais* haraneko gain batean dagoen *Varen* herritik *Sierre*, *Sion* eta bailarako beste herri nagusietan jautzitako su-festak herriko muino batetik ikusteko aukera izan genuen.

Ibilaldiko lehen egunean autobusez hurbildu ginen gure abiapuntua izango zen *Leukerbad* herrira (1411 m). Alpeetako gune termal handiena dela iragartzen dute eta bainuetxez gain, bertako plaza batean ere ur beroko iturriak ikusi genituen. Herria bailararen bihurgune batean kokatzen da eta aurrez aurre *Gemmipass* lepoa ikus daiteke. Egin behar genuen etapa historian zehar *Valais* eta *Bernako* kantoien arteko igarobide erabiliena izan da. Orain erabiltzen den bidea duela bi mende eraiki zuten eta zenbait zati harkaitzean zulatuta egin ziren. Herritik leporaino 900 metroko igoera zuzena dago eta denbora aurrezteko bertara igotzen den teleferikoa hartu genuen. Konturatzera, *Gemmipass* lepoko geltokian geunden (2322 m) herria behean utzita. Hegoaldera, *Zinalrothorn*, *Ober Gabelhorn*, *Cervino* eta *Dent Blanch* ikusten ziren urrutian. Guk iparraldera jo genuen *Daubensee* laku handia eskuin aldetik inguratzen duen bide zabal eta erraza hartuta, lakuaren atzean *Roter Tatz* mendiaren hormak aurrez aurre genituela. Ordubete inguruan *Schwarenbach* mendiko hotelaren ondotik pasa ginen eta dagoeneko kanpoko mahaietan bazegoen otordua egiten ari zen jendea. Handik gutxira bailara zabaldu eta *Schwarz* ibaiaren zabalgunera heldu ginen (1880 m), izen bereko glaziarreko urak sortutakoa. Haranean aurrera *Sunnbueleko* teleaulkira joateko bidea ezkerrean utzi genuen. Bailara pixkanaka ixten ari zen eta lautadako larreek landaretzari lekua

utzi zioten. Landare eta lorez bete zen ingurua eta bide bazterrean espezie desberdinen kartelak zeuden laguntza gisa. Urrutian ikusten genuen zelaira jaisten hasi ginen, landaretzatza ikusgarri horren artean hasieran, eta basoan barrena ondoren, desnibela azkar gaudituz. Paretan zizelkatutako zati batzuk igaro eta berriro basoan sartzean bertako atsedenera bat aprobetxatu genuen erreka ondoan lasai bazkaltzeko. Basotik jarraituta *Gasteretal* bailarako zelaietara iritsi ginen (1358 m). Handik pista bat hartu genuen, *Chluse* zintzurra zeharkatu eta *Kanderstegeko* haran zabalean agertu ginen (1174 m). Herriko lehen etxeen ondoan boy-scout-en gune internazionalaren eraikina altxatzen da eta eskuin aldera hegoaldeko *Valais* bailarekin lotzen duen trenbidearen tuneleko sarrera dago. Hamabost kilometro dituen *Lötschbergeko* tuneletik kotxeek eta kamioiek trenez gurutzatu dezakete mendigunea kantoietatik bestera. Handik gertu aterpea zegoen eta dutxa beroa hartu ondoren, atsedenerako tartea izan genuen. Ilundu aurretik kilometro eta erdira zegoen herria bisitatzea joan ginen eta afal orduan hasi zen ekaitzaren ondorioz itzulerako bidea euripean egin genuen. Gau hartan aterpean oso jende gutxi bildu ginen.

■ Gilbach bailarako etxea eta atzean Albristhor mendia

(*) **Xabier Erauskin Iurruta** (Lasarte-Oria - 1966). Informatikaria lanbidez. Lasarte-Oriako Batasuna mendi elkartearekin egin zituen Pirinioetarako lehen irteerak eta ordutik mantentzen du mendizaletasuna. Argazki kamara soinean duela Euskal Herriko eta Pirinioetako mendietan ibili ohi da, oinez, eskiekin edo erraketekin. Alpeetara ere joan izan da zeharkaldiak egitera eta horretaz gain lau mila metroko mendi batzuk ere igo ditu (Breithorn, Castor, Polux, Lyskam...). Urrutiagoko lurraldeetako mendiak ere bisitatu ditu Peru eta Islandian, baina gogokoenetakoa Aconcaguara igo zeneko espedizioa du.

SUITZA

Tour del Wildstrubel

SITUADO en el corazón de Suiza, el Oberland Bernés ofrece unos sitios y paisajes preciosos: prestigiosas cumbres de los Alpes, glaciares, profundos valles verdes con sus pintorescos pueblos, pastos y frondosos bosques. Este trek no es un recorrido famoso, pero sin duda es tan hermoso como los más populares, y desde luego mucho menos concurrido. A lo largo de 5 etapas, Xabier Erasquin nos narra con todo detalle las experiencias vividas en los Alpes berneses, recorriendo la zona del Oberland que tiene en el Wildstrubel su cumbre más emblemática.

■ Kandersteg - Adelboden

Gau osoan euritan aritu zen eta goizean giroa oraindik goibel zegoen, baina gosaltzen amaitzerako, zorionez, euria atertu zen eta behe laino artean abiatu ginen mendebaldera. *Via Alpina* berdeko etapa egin behar genuen eta bideko seinaleetan ikur berria agertzen zen. Bidean gora hasi ginen zelai eta zuhaitz artean *Usser Uschene* ingurunera ailegatu arte (1535 m) eta sakabanatutako borden artetik zihoan pista batetik jarraitu genuen. Pistaren amaieran bidea sigi-saga gorantz hasi zen. Laster arrabio alpetarrak ikusten hasi ginen eta hasieran kuriositatez begiratzen bagenituen ere, gero bidearen erdian nonahi agertzen hasi ziren. Asko hilda zeudela konturatu ginen, baina bizirik zeudenak ere geldigeldi geratzen ziren gu ondok pasatzean. Narrasti hau erabat beltza da eta nahiz eta gauz ibili ohi den, euri hotzaren ondoren egunez ere ikus daiteke. Aldapak ez zigun atsedetik eman *Alpschale* ingurunera heldu arte eta handik aurrera zeharkaldi lauago batetik bi txabolen ondora ailegatu ginen (2089 m). Horietako bat ostatu bezala antolatuta zegoen eta bertako neskek txabola barrutik agurtu gintuzten. Goiz osoa laino artean murgilduta generaman eta eguna ez zen jendea bertara hurbiltzeko aproposa. Igoeraren

azken zatiari heltzean, bertako katuetako bat atzetik zetorrela konturatu ginen eta *Adelboden*eko lehen ostatura heldu arte gurekin joan zen. Hasieran, eskuin aldera egin eta gero, diagonal luze batetik ezkerredera gindoazela gure gainean ikusi genuen 20 sarrioko talde bati begira geratu ginen. *Bunderchrinde* lepoa (2385 m) leku ikusgarria zen, mendebaldera ondoko mendietatik higitutako harriek estaltzen zuten zirkua eta giroa hobetzen ari zenez urrutian *Adelboden* herria laino artean ikus genezakeen gure zain. Jaitsierako lehen zatia harri askeko malda batetik egin behar zen, baina gero eskuin aldera bide ona hasten zen. Lehen larreetan menditik eroritako harriak pilatan bilduta zeudela ikusi genuen, belardiak garbiago izateko, eta horietako batean bazkaldu genuen katua oraindik ondoan genuela. Bidean aurrera jarraitu genuen baserri eta belardien artetik etengabe jaisten, baso berri batean sartu arte. Barnean landaretza ikusgarria ezkututzen zen eta gu ondok gindoazen lur eta asfalto zatiak tartekatzen. Basotik irtetean zelaien artetik zihoan bide batek bailara nagusiraino eraman gintuen. Ibaia gurutzatu (1238 m), beheko auzoa igaro eta maldan gora *Adelboden*eko kale nagusira igo ginen (1353 m), kale horren amaieran baikenuen aterpea. Logela handi batean kokatu gintuzten eta gau hartan aterpean bakarrak izan ginen. Arratsaldean herriko plazan garagardo batzuk hartu eta gustura afaldu genuen.



■ Daubensee lakuaren ondotik doan bidea

■ Adelboden - Iffigenalp

Hurrengo eguna eguzkitsu argitu zen eta mendebalderantz jarraitu genuen. Herria atzean utzi eta ibaia gurutzatu ondoren, *Gilsbach* auzoan sartu ginen (1466 m). Zelai berde, baserri, borda eta mendiek postal itxurako ingurunea osatzen zuten. Bailerako bide nagusia utzi eta eskuinera jo genuen *Via Alpinako* markei jarraituz errepide estu batetik barrena. Ondoren errepidea utzi eta eguneko lehen igoerari ekin genion belardi eta pinu artean. Eguzkia berotzen hasia zen eta itzala gustura hartu genuen. Gora heltzen ari ginela perretxiko bila ari zen jendearekin gurutzatu ginen. Basoa amaitu eta igoeraren azken metroan albotako bi bailaren ikuspegi zabala agertu zitzaigun. Urrutian, laino batzuen artean Wildstrubel mendiko tontorrak eta glaziarra nabarmentzen ziren. *Sillerenbuhlera* (1972 m) teleaulkia igotzen da eta jende ugari aurkitu genuen inguruan. Horietako zenbait pedalik gabeko bizikleta-patinete batzuetan errepidean maldan behera teleaulkiaren beheko geltokiraino jaisten ari ziren. Atsedean laburra hartu eta urrutian ikusten genuen lepora zihoan bidetik jarraitu genuen. Bidea oso eroso zen eta bailararen ikuspegi ederrarekin gozatzu ordubetean *Hahnenmoospass* lepora (1950 m) ailegatu ginen, tartean jende askorekin gurutzatuta. Lepoan urrunetik gidatutako hegazkin txikien erreinuarekin topatu ginen. Gidari asko zegoen hegazkinak alde batera eta bestera modu ikusgarrian gidatzen eta konponketa lantegia ere bertan zutela ikusi genuen. Mokadu baten ondoren, *Lenk* aldera eramango gintuen pistatik abiatu ginen *Bülberg* ostatuaren ondora ailegatu arte (1658 m). *Simmentaleko* bailararen behatoki ederra zegoen bertatik. Zelai eta pinu artean jaisten hasi ginen tarteka errepidea gurutzatuz. Herria begi bistan genuela, bide ondoan zeuden egurrezko aulkietako batean bazkaltzeko aprobetxatu genuen eta atsedena hartu ondoren herrira jaitsi ginen. *Lenk* herria (1068 m.) *Simmental* eskualdearen amaieran kokatzen da, lautada luze batean. Erdigunea gurutzatu eta hegoaldera jo genuenean, lautadaren artean *Wildstrubelen* mendigunea agertu zen bere 3243 metroko garaierarekin. Herriaren irteeran *Lenkse* hezegunearen ondotik pasa eta bide lautik jarraitu genuen *Iffigbach* ibaia gurutzatu arte. Berehala ibai ertzetik gorantz hasi ginen baso sakon batean barrena eta ibaiaren zintzur handi bat




■ Bisse du ro ibilbideko pasabidea

ezkerretik gaudituz ondoren, berriro ibaiaren ondora itzuli ginen. *Iffigen* bailaran geunden. Bidean aurrera, bailara ixten duten harresi batzuetatik erortzen den *Iffigfall* ur-jauziaren azpira heldu (1319 m) ginen, euritan hasten zen bitartean. Kapa jantzi, ur-jauziaren argazkiak atera eta eskuineko basotik gorantz ur-jauziaren gainera ailegatu ginen. Oraindik zuhaitz artean ibaiaren ondotik jarraitu genuen eta basoa amaitzean *Iffigen* bailara berriro gure aurrean ireki zen. Handik lasterrera *Iffigenalp* aterpera iritsi ginen (1.584 m). Eguna luzea izaten ari zen eta azken igoeraren ondoren, atsedena gustura hartu genuen. Eraikin nagusian jatetxea eta logelak zeuden eta 50 metrora eraikin xumeago batean aterpea. Garbiketak kanpoko aska batean egin genituen metro gutxira zeuden behien begiradapean. Gure eraikineko beheko solairuan ukulua zegoen, baina zorionez ondoko behiak urrutia goero eraikin batean gordetzen zituzten. Handik gertu Suitzako militarrek bakarrik erabili dezaketen teleferiko bat dago eta ilundu aurretik bisitatu genuen. Gau hartan ere aterpean ia bakarrik egon ginen.

■ Iffigenalp - Crans-Montana

Goizean goi lainoak nagusi ziren mendien gainetik. Epelean gosaltzen ari ginen bitartean aurrez aurre genuen *Rawilpass* lepora igotzeko harresian zehar igaro behar genuen zatia. Lasai igotzeko asmoz abiatu ginen. Ibaia gurutzatu eta bidea berehala gorantz hasten zen deskantsurik gabe. Lehen malda luzeak harresira hurbildu gintuen eta handik aurrera, aldapa leunduta, XVIII. mendean harkaitzean zulatutako bidetik ezkerretarako zeharkaldia egin genuen, ur-jauzi baten azpitik pasa eta *Blattihutte* aterpe librearen inguruan (2027 m) gaina hartu arte. Giro goibelak eta tartekako euri tanta batzuk igoera eroso izatea laguntzen zuten. Bidea mendigunean sartu zen eta bitarteko gainak gauditzen joanda *Rawilpass* lepora heldu ginen (2429 m). *Wildhorn* mendiaren bira egiten ari ziren suitzar talde batekin solasean aritzeko aprobetxatu genuen, baina giro haizetsuak ez zuen asko laguntzen eta ez ginen asko luzatu. *Wetzsteinhorn* mendiaren magaleko lautada zabala gure ezkerrean utzita hegoaldera jo behar genuen ia altuerarik galduta gabe. Orduan euria eta haize bolada gogorrek hasi ziren eta berehala belauetik behera blai eginda geunden. Haizeari aurre eginez bidea jarraitu genuen *Plan des Roses* arte (2367 m)



■ Gemmipass lepotik Zinalrothorn, Ober Gabelhorn, Cervino eta Dent Blanch



■ Iffigenalpeko aterpea eta Rawillpasserako bidea

inongo babesik topatu gabe. *Audannes* aterperako bidea eskuin aldera utzi eta hegoaldera jaisten hasi ginen *Armeillon* ingururaino (2130 m). Euria atertu zen eta deskantsatzeko denbora hartu genuen ura lasai edanda. Goiko lautadaren amaiera zen eta bailaran oraindik ezkutuan zegoen *Tseuzier* lakurainoko jaitsierari ekin behar genion. Hesi bat pasa ondoren, bidea larre batzuetatik sigi-saga jaisten zen eta halako batean zezen talde batera hurbiltzen ari ginela konturatu ginen. Beheko hesia ez zegoen urruti, baina zezenek gertu ikusi gintuztenean trostan gerturatzeko hasi ziren eta korrika egin behar izan genuen hesi elektrokoaren bestaldera igarotzeko. Susto txiki bat izan zen, baina ez genekien arrisksuak ote ziren eta zezenak tentatzeko gogorik ez genuen. Han bertan pista hasten zen eta tunel txiki bat igaro ondoren *Tseuzier* lakuraino jaitsi ginen pistatik barrena hainbat bihurgune eginda (1777 m). Lakua inguratzeko ezkerreko magaletik doan ibilbidea jarraitu genuen eta zenbait behi taldeen artean pasa ondoren lakuaren hormara heldu ginen. Aurrean 700 metroko sakonera hartzen duen *Tseuzier*eko sakana zegoen eta aurrerago gure helmuga zen *Crans* herriko eraikinak, baina bertara ailegatzeko inguraketa luze bat egin behar genuen oraindik. Bota bustiak kendu eta eguraldia hobetzen ari zela aprobeztatzeko sakanari begira bazkaldu genuen atsedena gustura hartuta. Nagitasun apur batekin jarraitu genuen inguraketa, pista berri batetik pixkanaka gorantz eta desbideratze baten ondoren beheagoko pista batetik *Er de Chermignon* arte (1733 m). Beste aldean *Bisse du Ro* ur kanalaren bidea hasten da, XIV. mendean eraikia ur hornidura bailarako herrietara eramateko. Horma ia bertikalen artean eraikitako bide ikusgarria da, denbora guztian amildegitik pauso batera, baina beti soka, baranda edo oinez pasatzeko tresneriaz lagunduta. Bidea ordu eta erdian egin genuen, inguruari lasai begiratu, bihurgune bakoitzaren ondoren gune zirrargarriak baitzeuden. Bidexka *Plans de Mayensen* (1620 m) amaitu zen eta basotik jaitsi ondoren *Crans-Montanako* lehen etxeetara heldu ginen (1474 m). Eguna luzea izaten ari zen eta iristeko gogoz ginen, baina herria bereziki luzea da eta herri barneko autobusa hartu genuen ostatura heltzeko. Gela *Valais* haranera begira zegoen eta arratseko azken orduak atsedenerako aprobeztatu genituen.

Informazio osagarria

Datu interesgarriak:

Etapa 1: Leukerbad - Kandersteg: 6 ordu.
Igoera: 911 m / Jaitsiera: 1148 m.
Etapa 2: Kandersteg - Adelboden: 7 ordu.
Igoera: 1320 m / Jaitsiera: 1147 m.
Etapa 3: Adelboden - Iffigenalp: 7.30 ordu.
Igoera: 1185 m / Jaitsiera: 978 m.
Etapa 4: Iffigenalp - Crans-Montana: 7.30 ordu.
Igoera: 1140 m / Jaitsiera: 1230 m.
Etapa 5: Crans-Montana (Aminona) - Leukerbad: 5.45 ordu.
Igoera: 610 m / Jaitsiera: 980 m.

Bibliografia:

"Schweiz: Wildstrubel-Runde" Ihle, Jochen - Stein argitaletxea (alemanieraz)
"Berner Oberland West": Anker, Daniel - Bergverlag Rother argitaletxea (alemanieraz)

Kartografia

Swisstopo 1247 - Adelboden - 1:25000
Swisstopo 1266 - Lenk - 1:25000
Swisstopo 1267 - Gemmi - 1:25000
Swisstopo 1286 - Saint-Leonard - 1:25000
Swisstopo 1287 - Sierre - 1:25000
Swisstopo 263T - Wildstrubel - 1:50000
Swisstopo 273T - Montana - 1:50000

Web guneak

<http://www.wandersite.ch/Wildstrubel.html>
<http://www.via-alpina.org/de/stage/119>
<http://www.leukerbad.ch>
<http://www.kandersteg.ch>
<http://www.adelboden.ch>
<http://www.lenk-simmental.ch>
<http://www.crans-montana.ch>

■ Crans-Montana - Leukerbad

Azken egunean berriro autobusaz baliatu ginen ekialdeko *Aminona* auzora hurbiltzeko. *Colombire* inguruan geratu eta *Bisse de Tsitoret* ubidera (1850 m) igo ondoren, iturbururantz jo genuen ur korrontearen alboko bide errazetik. Zuhaitzen itzalpean gindoazen *L'Apriliko* zelaien gainetik eta *Valais* bailara eta pareko Alpe Peninoak laino sakabanatuen artean ezkututzen ziren. Ubidea jarraituta *Petit Mont Bonvin* inguratu genuen *Tieche* bailararaino (1927 m), eta han, zubi bat gurutzatu eta mendebaldera jarraitu genuen baso batetik gorantz *Vernalalp* mendigunera. Zelai batera irten eta borda bakarti baten ondoan euria hasi zitzaigunean, kapak jantzi eta igoeraren azken zatiari ekin genion *Planigracht* ingururaino (2231 m). Ordurako euria gogor ari zuen eta babesgabeko inguru horretan haizeak gogor jotzen gintuen. Gure nahasmenerako, lehen aldiz *Leukerbad* herrirako seinaleak frantsesezko *Loècheles-Bains* bezala ikusi genituen eta norabidea ziurtatzen aritu ginen euripean. Tontor txiki batean zegoen gurutzaren ondotik pasa eta behegona hasi ginen. Lainoen artean *Leuk-Susten* herria ikusten genuen mila eta bostehun metro beherago. Harrien artean sigi-saga jaisten ari ginela euria atertu zuen eta giro lasaiagoan *Challer* ingururaino heldu ginen (1875 m). *Theodul* baselizaren atarian atsedena hartu, lehortu eta mokadu bat jateko aprobeztatu genuen. Berriro basoan sartu eta *Varen* herrirako bidegurutzea eskuin aldera utziz, iparraldera jo genuen mendiaren horma handi bat harrian zizelkatutako bide batetik igarota. Dagoeneko laino artean *Leukerbad* ikus genezakeen. Pista batera ailegatu ginen eta bide lauan jarraitu genuen baso batetik barrena, bidegurutze batean gorantzko bidea hartu arte. Bitartean, berriro euria hasi zen. *Daubenhorn*etik zetozen erreka eta ur-jauziak urez gainezka zeuden eta tartean zubi gabeko erreka bat zailtasunekin zeharkatu ahal izan genuen. Gain batetik pasa ondoren herria gure aurrean agertu zen eta azken jaitsiera lokatz artean eginda, azkenean *Leukerbadera* iritsi ginen (1402 m). Kirol gunea gurutzatu eta autobus geltokira zuzendu ginen. Duta bat hartu eta lehortzeko gogoz geunden, baina hurrengo egunean berriro *Leukerbadera* igo eta eguna bainuetxe batean igarotzea erabaki genuen. □